

'Sagardoa txotxetik, euskara gogotik' sagardotegietan euskaraz egiteko

JOXANJEL ALDAI / **HERNANI**



'Sagardoa txotxetik, euskara gogotik' izeneko kanpaina aurkeztu zuten atzo eguerdian Hernaniko eta Astigarragako udalek eta bi herriotako sagardogileen ordezkariak. Helburu nagusi bat nabarmendu zuten, «sagardotegietan berriro euskara suspertzea eta hiru urteren buruan sagardotegietako harreman guztiak —ahozkoak zein idatzikoak— euskaraz egitea».

Hernaniko Zelai sagardotegiko freskuran ondoren emandako tortila jateko eta sagardoa edateko gogoak egiten ziren bitartean azaldu zituzten kanpainaren gorabeherak bi herrietako alkateekin batera, udaletako euskara teknikariak. A. Ezponda Hernaniko alkateak adierazi zuenez «aldatu egin da zertxobait sagardotegietako giroa, eta beste hainbat esparrutan bezala normalizatu behar hori honetan ere badu euskarak».

Antton Arka Astigarragako iharduneango alkateak esan zuenez bilera ugari egin dute «fruitu aberatsak eman ditzakeen kanpaina hau prestatzeko». Abenduan ekin zieten lehendabiziko kontaktu eta prestakizun lanei eta kanpaina aurrera ateratzeko ezinbestekoa den sagardogileen oneritzia eta laguntza lortu zuten. Ordainketan ere —1.800.000 pezetako aurrekontua (90.000 liberra)— udalek zein sagardogileek hartuko dute parte.

Prestatutako ekintzen artean nagusia martxoaren 8an sinatuko duten hitzarmena izango da. Hitzarmen horretan «hiru urteren buruan hitzeko zein idatzizko sagardotegietako eta sagardogileen iharduera osoa euskaraz izateko» konpromezua lortu nahi dute.

Lehendabizko urte honetan sagardotegietako paper, faktura, karta, txartel etabar euskaraz jartzea lortu nahi dute. Bigarren urterako botile-

tako etiketa, kortxo etabar, eta hirugarren urterako harreman guztiak euskaraz egitea lortu nahi dute. Horrekin batera, kanpainaren helburu nagusia sagardotegietako giro euskalduna suspertzea da eta horretarako bertso jaialdiak izango dira ostiral eta larunbatero, astero bi sagardotegi ezberdinetan.

Gainontzeko ekintzen artean sagardogintzako hiztegi propioa ezagutarazteko lexiko hori jasotzen duten kartel batzuen argitaratzea, asteotan egingo diren irrati emanaldi berezi batzu, eta aurtengoz kanpainari amaiera emateko martxoaren 27an Hernaniko sagardotegiren batean egingo den jaialdia. Kanpaina hasieran euskararen erabilpenaren neurketak egin zituztela azpimarratu zuten eta bukarean ere, beste horrenbeste egiteko asmoa dutela, 'sagardoa txotxetik, euskara gogotik' kanpainak zenbateko eragina izan duen jakiteko.